



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

 Enkarterrietako Museoa

PRENTSA-OHARRA

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK XIV. ETA XIX. MENDEEN ARTEKO IA 300 DOKUMENTU BATZEN DITUAN ARGITALPENA AURKEZTU DABE**

- **Goio Bañales historialariaren “Enkarterri. Haren historiarako dokumentuak. 1297-1821” liburuak lanerako eta ezagutzarako tresnea eskintzen deutse aditu, interesau eta ikertzaileei.**

(Abellanedan, 2022ko apirilaren 21ean). Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagoan Enkarterrietako Museoak eskualdearen eta, orokorrean, Bizkaiaren iragana aztertzen eta ikertzen jarraitzen dau. Gaur, etenbako ezagutza-prozesu horren azkenengo kapitulua emon da ezagutzera, Goio Bañales historialariaren lana zabalduz. XIV. eta XIX. gizaldien arteko 276 dokumentu batu ditu guztira (1297. eta 1821. urteen artekoak); oso lan interesgarria da, eta adituentzako, interesdunentzako eta ikertzaileentzako lan-tresna erabilgarria.

“Enkarterri. Haren historiarako dokumentuak. 1297-1821” izeneko liburua igaz argitaratutako beste liburuki baten jarraipena da, eta moeta guztietako idazkiak batzen ditu 1.362 orrialdetan: aktak, dokumentu historikoak, irudiak, hamarrenak, jurisprudentzia... Irakurleak antxinako uribilduen sorrerea gogorarazoten deuskuen transkripzioak aurkitu ahal izango ditu, horreen artean Lanestosarena 1287an; XIV. gizaldiko bizimoduak susmau ahal izango ditu 1386an Artzentaleseko eta Santurtziko nekazariak ordaindu behar ebezan hamarrenak irakurtzean; Erdi Aroko ontzigintzara hurbilduko da Martin Ochoa de Larrearen (1480) edo Martin Diaz de Menaren karabelen aitamenakaz; Balmasedako eta San Martingo (1480) gotorlekuak etorriko jakoz gogora; herrien mugei erreparauko deutse, Salcedo (Zalla eta Gueñes), Gordexola eta Okendo artean dagoan 1406ko apeoari esker; gaur egun Kantabrian dagoan Castro Urdiales bere historiaren parte batean Bizkaiko Korrejimenduaren parte izan zala jakingo dau; eta burdinak Enkarterriko ekonomian izan eban garrantzia baieztuko dau, Erdi Arotik XIX. mendera Somorrostroko haranean ibili ziran burdingurdiak ezagutuz.

Hilketak, zalapartak, guduak, erbesteratzeak eta hainbat ika-mika, horreen artean 1486an Ochoa de Ortusaustegui hilteagaitik Diego de Larragorria Gordexolako bizilagunaren kontra ezarritako heriotza-zigorra, Barakaldoko kartzelako kontuak (1489), Ochoa de Salazarri ezarritako kondenea (1489) eta Bañalestarrakaz izandako auziak (1490). 1494an Abantora armauta joan ziran 5.000 edo 6.000 enkarterritarrek sortutako zalapartea eta altxamendua oso nabarmena izan zan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

Garai bateko bideak (1491), Trianoko Goi Mendietako mea-guneak (1491), burdinolak (1492), antxinako bentak (1492) edo Gaztelako urrutiko lekuakaz egiten zan merkataritza, Medina del Campogaz, adibidez, 1494an hara bidaiatzen eban Galdamesko Ochoa de Gulluri moduko bizilagunak protagonista zirala. Horreek guztiak garai haretako bizimoduaren adibide dira. Garai haretan bizimodua ataratea ez zan beti erreza, 1495ean ikusten dogun moduan. Urte haretan, “aguadutxu”, eta uriola handi batek etxeak, bideak eta zelaiak suntsitu ebazan Cadaguako haran osoan, eta denpora luzez inkomunikauta itxi eban inguru hori guztia.

Holako dokumentu horreek “iragana modu zuzenenean ulertzen laguntzen dabe. Edozeinek kontsultau eta bere lanak egiteko erabil daiken materiala da. Iraganera gerturatzen gaitu, kasu honetan Enkarterriko iraganera, baina baita Bizkaiko eta inguruko lekuetako iraganera be, Arabako Aiala bailarara edo ondoko Castro Urdiales urira”, Javier Barrio Enkarterrietako Museoko zuzendariaren berbetan. Azken batean, “Bizkaiko parte bateko, Enkarterriko, historia osoa. Historia horretan jente arrunta familia handiakaz nahasten da. Lurralde honen historia moldatu eben leinuak, batzuetan txarrerako, beste batzuetan ez hain txarrerako eta inoiz onerako be: Aialatarrak, Salazartarrak, Velascotarrak, Bañalestarrak eta beste hainbeste”.

OHARRA: Dokumentuaren tamaiana dala eta, dokumentua Enkarterrietako Museoaren webguneko “argitalpenak” atalean kontsultau daike ([www.enkarterrimuseoa.eus](http://www.enkarterrimuseoa.eus)).



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

NOTA DE PRENSA

## **JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PRESENTA UNA PUBLICACIÓN QUE RECOGE CASI 300 DOCUMENTOS DE LAS ENCARTACIONES DE ENTRE LOS SIGLOS XIV Y XIX**

- **El trabajo del historiador Goio Bañales “Encartaciones. Documentos para su historia (1297-1821)” proporciona una herramienta de trabajo y conocimiento a estudiosos, interesados e investigadores.**

(Abellaneda, a 21 de abril de 2022). El Museo de Las Encartaciones, propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia, continúa con su trabajo de difusión e investigación del pasado de la comarca encartada, y en extensión de Bizkaia. Hoy, se ha hecho público el último capítulo de este proceso continuado de conocimiento con la difusión del trabajo del historiador Goio Bañales que ha reunido en un volumen un total de 276 documentos de entre los siglos XIV y XIX (fechados entre 1297 y 1821); un importante reclamo y una herramienta de trabajo útil para estudiosos, interesados e investigadores.

El libro titulado “Encartaciones. Documentos para su historia (1297-1821)”, que es una continuación de otro volumen publicado el año pasado, reúne en 1.362 páginas, escritos de todo tipo: actas, documentos históricos, ilustraciones, diezmos, jurisprudencia... El lector podrá encontrar transcripciones que nos recuerdan la fundación de antiguas villas, como la de Lanestosa en 1287; podrá intuir los modos de vida del siglo XIV al leer los diezmos que tenían que pagar los labradores de Arcentales y Santurtzi en 1386; se acercará al mundo naval de la Edad Media con las menciones a las carabelas de Martín Ochoa de Larrea (1480) o Martín Díaz de Mena (1480); recordará las fortalezas de Balmaseda y San Martín (1480); observará la formación de los límites de los pueblos gracias al apeo entre Salcedo (Zalla y Gueñes), Gordexola y Okendo de 1406; recordará como la cántabra villa de Castro Urdiales fue parte del Corregimiento de Bizkaia durante parte de su historia; y confirmará la importancia del hierro en la economía de Las Encartaciones conociendo las carradas de vena que recorrieron el valle de Somorrostro desde la Edad Media hasta el siglo XIX.

Asesinatos, alborotos, batallas, destierros y disputas como la pena de muerte contra el vecino de Gordexola Diego de Larragorria por asesinar a Ochoa de Ortusaustegui en 1486 completan las páginas, así como historias de la cárcel de Barakaldo (1489), la condena a Ochoa de Salazar (1489) o los pleitos con los Bañales(1490), son otros de los reclamos de esta publicación. Muy señalado fue el alboroto y levantamiento realizado por 5.000 o 6.000 encartados que acudieron armados a Abanto en 1494.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

 Enkarterrietako Museoa

Los antiguos caminos (1491), las veneras de los Montes Altos de Triano (1491), las ferrerías (1492), las antiguas ventas (1492) o el comercio con lejanos lugares de Castilla, como Medina del Campo, protagonizados por vecinos como Ochoa de Gulluri, natural de Galdames, quien viajaba allí en 1494, son algunos ejemplos del modo de vida de aquel momento. Una vida no siempre fácil como se documenta en 1495, año en que un enorme “aguadutxu” –inundación- arrasó casas, caminos y campos por todo el valle del Cadagua, dejándolo incomunicado durante un largo periodo de tiempo.

Estos papeles “*son los que ayudan a entender el pasado de la manera más directa. Suponen un material que cualquiera puede consultar y utilizar para desarrollar sus propios trabajos, que nos acercan al pasado, en este caso de Las Encartaciones aunque también de Bizkaia y de zonas aledañas como el alavés valle de Aiala o la vecina villa de Castro Urdiales*”, según Javier Barrio, director del Museo de las Encartaciones. En definitiva, “*toda una historia de parte de Bizkaia, de Las Encartaciones... en la que la gente común se mezcla con las grandes familias, linajes que moldearon la historia de esta tierra, a veces para mal, otras para menos mal y, en ocasiones, para bien: los Aiala, los Salazar, los Velasco, los Bañales y otros tantos.*”

**NOTA:** Debido a su volumen, el documento se puede consultar en el apartado “publicaciones” de la página web del Museo de Las Encartaciones ([www.enkarterrimuseoa.eus](http://www.enkarterrimuseoa.eus)).